

Txomin zapatagiña

Ondo ezaguna zan errian Txomin zapatagiña. Aldikada baten polito bizi izan zan zapatak egin eta egin; baiña gero, bere erru bagarik, itxura zanez, ezer-ezera etorri zan. Pare bat zapata egiteko narrua geratzen yakon bakar-bakarrik. Gorriak ikusi bear izan zituan.

Gau batean, alan be, ebagi eban geratzen zan narru ori, zapata biak urrengo goizean josiko ebazala-ta. Au egiñik, barrua garbi ta nare eukan ezker, ogeratu zan beste egunetan lez etorkizuna Jaungoikoaren pertzura itxirik. Loak artu eban Jesus ameneko.

Biamonean, bere goizeko eskari ta otoitzak eginda gero, bezperan gerturik itxi eban lanaren billa joan zan amaitzeko: zapata pare eginda aurkitu eban. Arri ta zur gelditu zan gizona, begiakaz ikusten ebana siñistu eziñik. Zapatai begitu ta begitu, jostura onez eginda egozala konturatu zan, ziztada bakotxa bere lekuan, ez aruntzago, ez onuntzago. Argi ikusten zan, ba, orrelako lanetan trebe ta zolia zan norbait ibilli zala bitartean.

Gerotxoago erosle bat eldu yakon dendara; zapata billa etorren, eta ondo etorkozan ala ez ikusirik, guztiz eroso eukazan, eta legezkoa baiño diru geiago ordaindu eutsan zapatariari. Onek, orrela, beste pare bi egi-teko beste narru erosi al izan eban. Narru erosi gabeen ebagi ta lotara joan zan, urrengo egunean len baiño be gogotsuago lan egitekotan. Jagi zanean, baiña, amaituta aurkitu zituan pare bi zapatak, eta laster izan eban oneik be nok erosi. Erosle barriak be ondo ordaindu eutsazan lez, beste lau paretako aiña narru erosi al izan eban. Biamonean, goiz-goi-zetik, lau orreik be amaiturik egozan, eta era berean aurrerantzean be. Arrigarria, benetan! Gabaz ebagiten zituan zapata-narruak, urrengo goi-zerako osorik eta bikainkiro josita agertzen ziran. Labor esanda, len ezer ez eukan zapatariak ederto aurkitzen zan, gizon eroso, ondo-jantzi ta txapeldun egiñik.

Gau batean —Pazko ostetxoan—, zapataria ta bere andrea, aparria egin eta ogeratzeko egozala, senarrak esan eutson emazteari:

—Eta gaur gabeen ogeratuko ez ba'giña? Zer deritxazu? Mesede oneik, nok egiten dauskuzan ikustearren, ni ez nintzateke ogeratuko. Egunen baten, gaiñera, ordaindu al ba'geuntsoz!
Bat datoz senar-emazteak, eta ortarako argizai bat ixetzen dau emaz-teak; ondoren, biak ostenduten dira errezel edo kortina baten atzean, zer jazoko zain.

Gau erdian, ormako erlojuak amabi tak-tak jo ebazanean, gizontxo bi, narru gorrian, zapata-dendan sartzen ikusten dabez; zapatagiñaren mai aurrean jarri ta bertan gerturik egoan lana eskuratzen dabe. Josten diardue gero, zulotu ta untzeak sartu; arin ta moduzko darabillez euren atzamartxoak: zapatagiña, zubilduta, ez da gauza aren lana begiakaz jarraitzeko. Gizontxo areik, euren egitekoa amaitu ta mai gaiñean itxi arte, etzitan unetxo baten be geratu. Gero, bat-batean jagi ta kalera ur-ten eben ariñeketan.

Biamonean, andreak esan eutson zapatagiñari:
—Gizontxo orreik aberastu gaitue, ta, nik uste dot, geure esker ona erakutsi bear geunskicela. Billosik dabiltz or zear eta otz izango dira, ziur asko. Begira: alkondarak, prakak eta jake-txalekoak egingo dautse-daz; baita kaltzerdi pare bat eta artulezko esku-zorro pare bat be, bako-txak bere jantzia izan dagian. Zuk, jakiña, bear dabezan zapatak egingo dautsezuz.

Emazteak iñotsana ontzat artu eban zapatagiñak. Eta biak beingoan lanari oratu ta ez eben itxi euren arazoa osorik amaitu arteño: gaberako, ain zuzen be, soiñeko ta oiñetako guztiak amaituak zituen. Apaltzera joan ziran ondoren, eta, ogeratzeko orduan eldu zanean, mai gaiñean itxi ebezan euren erregaluak, egunean eguneango zapata-narru ebagiaren orde. Eurak, oster, gorde egin ziran gizontzo areik egin eikeena ondo ikusteko eran.

Amabiak ots-egiñaz bat sartu ziran gizontxoak, besteetan lez lanerako gertu; baiña arri ta zur gelditu ziran mai-gaiñeko jantziak ikusiaz. Las-ter, alan be, eurekan etorri ta bizkortu ziran. Alkondarak, prakak eta jake-txalekuak jantzi ta,

Oi!, ui!, jantziok bai bikaiñak!

Esku-zorro ta oski liraiñak!

iñoen kantari. Irra ta kanta, oski-denda barruan ebiltzan zalapartaka. Azkenez, dantza ta ijutika oindiño, kalera jo eben.

Gizontzo areik etzitun zapatagiñak gaiago ikusi. Baiña zoriontsu bizi izan ziran luzaro bera ta bere emaztea.

Igotz